

B.A.K.4

# LUXUZKO HOTELA BILBOKO ARENAL KALEAN

---

Ikaslea: Maitane Lacalle Arbaiza - Irakaslea: Maria Olatz Irulegi Garmendia

Gr.A.L. Uztaileko deialdia

(K) KOKAPENA

(A) ANALISIA

(LEG) LEGEDIA

**PROIEKTUA**

(PR) PROPOSAMENA


(ARK) ARKITEKTURA

**DESKRIBAPEN TEKNIKOA**

(X) XEHETASUNAK

(E) EGITURA

(INST) INSTALAKUNTZAK



## PROIEKTUAREN LABURPENA

Zer: Erabilera aldaketa esku hartzea  
Non: Bilboko Arenal kaleko 4 zenbakian

Bilboko alde zaharrean kokatzen den eraikin baten eraberritzea planteatzen da. Arenal kaleko 4 zenbakia hiri barruan oso espazio esanguratsua betetzen du izan ere alde zaharren "fatxadaren" konposizioaren parte da. Urteetan zehar hainbat erabilera aldaketa izan ditu, azkenekoa banketxe bat izanik, oraingoan bere urte gorenak berreskuratu nahian hotel erabilerara bueltatu egingo da.

Hotelen ikuspegi tradizionaletik aldendu nahi izan da eta erabiltzaile ezberdinen beharretara moldatuz. Batez ere negozio edo lan bidaietarako bezeroetan zentratzea du helburu, beraz bezero mota hauen beharrak aztertuta lortu izan da proiektuaren programa.

Hirira hordu batzuetarako besterik ez edota hilabete oso baterako datorrenei moldatzea du helburu, horretarako logela tipologi ezberdinak sortu izan dira (lo egitekoak besterik ez, logela arruntagoak edota luxuzko logelak ere). Negozio bidaiak dituzten gurasoentzat ere haurtzaindegia berrikusi da, hau bezeroentzat ez bakarrik eta bertako eta inguruko langileentzat ere erabilgarria izan daiteke-larik.

Beste alde batetik, proiektuaren garapenari dagokionez, barnealdea erregulartzatuz eta logela ezberdinak txertatuz, espazio amankomun ezberdinak sortu dira, erabiltzaile ezberdinen arabera moldatuz joango direnak. Fatxadaren babes maila dela eta, hau ia bere osotasunean mantendu izan da eraikinaren izae-ra bermatzeko nahiarekin, beraz logela ezberdinei kanpo espazio bat eskaintze-ko, fatxadaren eta logelaren artean retrankeo bat sortu da, nolabait fatxadari sakontasun eta dinamismo gehiago eskainiz.



Azkenik eraikinari estalki berri bat eskaintzen saio atzeratuak dituen azken solai-ruetan. Honen geometria eta materialitatea alde batetik eraikin berari erantzut-ten diote hutsarteen erritmo eta boluetria jarraituz, eta bestetik inguruko eraiki-nek dauzkaten estalkiekin integratzeko.

**(K) KOKAPENA**

K01. KOKAPEN GEOGRAFIKOA

K01. KOKAPENA HIRIAN

K02. INGURU GERTUA



KOKAPENA: Bilbo, Bizkaia

ORUBEA: Arenal kalea, 4

Bilboko alde zaharrean kokatzen da eraikina, hiriaren zentroan hain zuzen ere, Arenal kalearen laugarren zenbakian. Hirian oso espazio esanguratsua betetzen duela esan daiteke, izan ere alde zaharren "fatxada"-ren konposizioaren parte da beste hainbat eraikinekin batera eta Diego Lopez de Haro Kale Nagusiaren amaieran kokatzen da Nafarroa kalea eta Areatza zubiaren ondoren.

Alde zaharraren eraikin altuenetarikoa da B+8 solairuekin alboan dituen eraikinekin batera eta eremu oso esanguratsuan kokatzen da hirian garrantzi handia duten bestelako eraikin eta espazioez inguratua: Arriaga antzokia, Arenal, San Nikolas eliza edota alde zaharraren barruan aurkitzen den Plaza Berria besteak beste.



## **(A) ANALISIA**

### HIRI MAILAKO ANALISIA

- A01. HISTORIA
- A02. BIRGAITUTAKO EREMUAK
- A03. ERAIKIN BERRIAK
- A04. ERAIKIN BIRGAITUAK

### ALDE ZAHARRAREN ANALISIA

- A05. HISTORIA
- A06. ERAIKIN ESANGURATSUAK
- A07. MUGIKORTASUNA
- A08. ESPAZIOEN AZTERKETA

### INGURUA

- A09. ERAIKINAREN INGURUA
- A10. INGURUKO ERAIKINAK

### ERAIKINAREN AZTERKETA

- A11. HISTORIA. KRONOLOGIA
- A12. HISTORIA. ARGAZKIAK
- A13. - 14. LORTUTAKO PLANOAK
- A15. GAUR EGUNGO EGOERA. ARGAZKIAK
- A12. GAUR EGUNGO EGOERA. DESKRIBAPENA



## 01. HISTORIA

Bilboko hiria, **hiri bildu** baten moduan hasi zen eta Nerbioi ibaiaren alboan garatzen hasi zen, Kantauri itsasoarekin kontaktu zuzena zuela. Hiriaren hirigintza **garapena** beraz, zuzenean honen **kokapen geografikoarekin** lotuta egon zen.

Hasiera batean **itsas komertzioa** nabarmentzen da Bilbon, bere kokapena, baina 1850. urtean **iraultza industrial**a heltzean Bilboko hiria hiri industrial batean bilakatu zen. Garai honetatik aurrera hiri osoaren aktibitate ekonomiko gehiena **siderurgia eta ontzigintzan** zentratu zen.

Industria gunea, itsasadarraren eskuin aldean zentratzen zen batez ere, gaur egungo Abandoibarra izango, hau sektore langilea izango zen, ezker aldekoa berriz Deusto aldea hain zuzen, sektore kapitalistak izango zuten.

1975. urteko **krisi industrialak**, hau guztia aldatu zuen eta **ondorio larriak** ekarri zituen hiriarentzat. Biztanleriaren %30 baino gehiago langabezia egonda, **aktibitate formula berriak** bilatu behar izan zituen.

Bilbo, hiri guztiz industrial bat izatetik, **kultura eta zerbitzuetan** murgiltzen den hiri bat izatera pasa zen eta gaur egun **hirigintza birgaitetan** ematen ari den adibideri honenatarikoa da.




## 02. BIRGAIUTAKO EREMUAK

Hiriaren **aldaketa** posible egiteko, batez ere **hiru gune** hauek landuak izan dira. Hirurak itsasadarraren ertzean, eta honegatik mugatuak daudela, bakoitza modu ezberdin batean garatua izan da.

Alde batetik **Abandoibarrako** gunea, **guztiz moldatua** izan da. Lehen eremu **guztiz industrialia** zena, gaur egun hiriaren **puntu garrantzitsuenetarikoa** bilakatu da batez ere **turismoaren** aldetik. Hirigintza berri bat proposatuz eremu guztiz berria sortu da bertan, eremura egoki moldatzen dena eta izugarrizko aktibitatea duena.

Beste aldetik **Bilbo Zaharra**, gaur egun oraindik **berrikuntza prozesuetan** agertzen dena. Batez ere **etxebizitzetarako** bideratua dagoen eremu honetan, arraza, arte eta adin ezberdinak nahasten dira eta honek **dibertsitate gehien duen azuloan** bilakatu du eta lehen hirigunetik aldentzen zen eremu honek gaur egun beraren parte ere bada.

Azkenik, **Alde Zaharraren** birgaitetari dagokionez, **1983eko uholdeen** ondoren ezinbestekoa izan zen eremu honen birgaiteta egitea eta birgaiteta honekin batera, alde zaharra egurena moldatuz joan zen. Oraindik ere **martzan** dagoen Plan Bereziarekin moldatuz doa.



1. ABANDOIBARRA



2. BILBO ZAHARRA




3. ALDE ZAHARRA

### 03. ERAIKIN BERRIAK

Hala ere, aldaketa ez da bakarrik eraikin zaharrak birgaituz lortu, **oin berriko** eraikin asko agertu dira birgaituekin batera.

Azken urteotan, hiriak **arkitektura kontemporaneoan** asko inbertitu izan du bai erabilera **publikoko** eraikinetan baita erabilera **privatuetan** ere hiriarri zerbitzu ezberdinak eskainiz eta honek turismoan eragin handia izan du.

Lehen aipatu bezala, eraikin berri gehienak **Abandoibarran** kokatzen dira, hauen artean ezagunena Frank Gehry-ren Guggenheim museoa itsasadarraren ertzean kokatua, baina hau ez da bakarra. Arkitektura kontemporaneo edota klasikoagoa ikus daiteke, eta hau eraikin bakoitzak bere **izaera propioarekin** bainak guztiak hiri beraren parte izanez.



1. Euskalduna jauregia



3. Bizkaia aretoa EHU



10. Iszaki atea



2. Deustuko liburutegia



4. Zubiarte zentro komertziala



11. San Agustin eraikina



5. Iberdrola dorrea



12. Bizkaia Plaza eraikina



6. Guggenheim museoa



13. San Mames berria



7. Arte ederretako museoa



14. Bilbao Arena Pabiloia



8. Foru liburutegia



15. Ingeniaritza eraikina



9. Osakidetza egoitza




16. Musika kontserbatorioa

#### 04. ERAIKIN BIRGAIUAK

Hiri mailako aldaketa handi honekin batera, eskala txikiago batean garatutako beste hainbat aldaketa eman izan dira ere. Bilbo osoan sakabanatuak dauden eraikin garaikide asko **gaur egunera moldatuak** izan dira.

Eraikin hauek hiri berri honen parte ere badira nahiz eta kasu askotan haien **erabilera aldatu**, izan ere hiriak gaur egun daukan **izaera kultural** berrira moldatzen dira. Egindako zenbait interbentzio eraikinean **moldaketa handiak** egin dituzte, beste batzuk berriz, interbentzio **xumeagoak** izan dira baina beti ere eraikinaren eta hiria **izaera** mantendu nahian.

Gehienak, erabilera **publikoko** eraikinak izan dira, museo, antzoki edota eremu kulturalak sortuz, hala ere zenbait eraikin **privatu** ere badaude hauen artean. Ondoren aipatzen dira hauetako batzuk eta hauek hirian zer leku hartzen duten.



1. Alhondiga Bilbao



6. Ribera merkatua



2. Campos Elíseos antzokia



7. Naturgas egoitza berria



3. Arkeologi museoa



8. Basurto distrito zentroa




4. Castañoseko merkatu zaharra



9. Terminus eraikina




5. Bilboko kasino handia




Bilbo 1545



Bilbo Erdi Aroan



Bilbo 1739



Bilbo 1800 inguruan

## 01. HISTORIA

1300 urtean Diego Lopez de Harok, XI. mendeko Bizkaiko jauna zenak, **hiribildua fundatu** zuen itsasadarraren eskuineko aldean Begoñako elizpeari kendutako lurraldearen gainean. Aukeratutako gunek zenbait onura aurkezten zituen: Ibaizabal ibaitik hegoalderantz kokatzen den tokia da non mareabehera egonda alde batetik bestera ibiliz pasa zezaketen eta mareagora egonda berriz ontzien pasoa bermatzen zuen.

1310 urtean, Maria Diaz de Harok, pribilegio gutun bat eman zion Bilboko hiriguneari, Gaztelako itsas komertziantek guztiek **bertatik pasa** beharko ziren, horrela, Bilbok itsas **komertzioaren kontrol handia** lortu zuen Nerbioitik Kantaurira arte.

Garai honetan, izaera ezberdinetako **bi biztalaria** nukleo agertzen ziren gune honen inguruan, bata ezkerreko bazterrean "**Bilbao la vieja**" izenarekin ezaguna, **meatzari** gunea izango dena, burdina eta bestelako metalak lantzen duena, eta bestea **Alde Zaharra non mekataritza** nagusitu egingo den.

Alde zaharra, **harresiz inguratua** egongo da ia 1500 urtera arte eta hiru kale paralelok osatuko dute, Somera, Artekale eta Tenderia kaleak hain zuzen.

XV. mendean, **hirigintza zabalkuntzarako** planak garatzen hasi ziren eta beste lau kale paralelo sortu ziren itsasadarrera perpendikular egongo direnak, Belostikale, Carniceria Vieja, Barrenkale eta Barrenkale Barrena eta gaur egunera arte heldu den izendapenari hasiera eman zitzaion, Zazpi Kaleak.


1511an, Gaztelako Juana I-ak kontsulatu izaera eskaintzen dio Bilbori eta Espainiako **portu garrantzitsuenetako** batean bilakatzen da. Ondoren, 1602 urtean Bizkaiko **hiriburu** bilakatu zen.

1979tik Alde Zaharra osatzen duten **zazpi kaleak oinezkoentzat** dira eta nahiz eta bere erabilera printzipala etxebizitzetarako izan, komertzioak, tabernak eta jate-txeak agertzen dira batez ere behe solairuetan gehienbat.

Gaur egun hiriarentzat **gune oso garrantzitsu** batean bilakatu da, hiri zentroaren parean kokatuta, aktibitate askoren eszenatokia da.

## 02. ERAIKIN ESANGURATSUAK

Eraikin garrantzitsu ugari agertzen dira alde zaharrean zehar



1. San Nikolas eliza



2. Joan Santuen eliza



3. Donejakue katedrala



4. San Anton eliza



5. Enkarnazioaren eliza



6. Arriaga antzokia



7. Arenaleko kioskoa



8. Udal liburutegia



9. Arkeologi museoa



10. Yohn Jauregia



11. Riberako merkatua



12. Garcia Rivero ikastola




13. Emilio Campuzano institutua



14. Atxuriko geltokia

### 03. MUGIKORTASUNA

Garraio publikoko zerbitzuak nahiz oinez egin daitekeen hiria



Hiri autobusak



Metroa



Tranbia

### 03. ESPAZIOEN AZTERKETA


Kaleen izaera eta erabileraren arabera espazio ezberdinak sortzen dira eraikinen artean



Ibilgailuak errepidean (perimetroa)







Oinezkoak eta ibilgailuak, kale zabalagoak




Oinezkoentzako kale estuagoak




Plaza eta espazio irekiak









1. Lehen "La union y el Fenix" eraikina  
Etxebizitzak eta bulegoak  
Arenal kalea 3. zenbakia  
BS+6+ estalki  
1927-28 eraikia  
Arkitektoa, Tomás Bilbao



2. Bulego eraikina  
Arenal kalea 2. zenbakia  
BS+7



3. Etxebizitza eraikinak  
Arenal kalea 1. zenbakia  
BS+4



4. Etxebizitza eraikinak  
Korreto kalea 6. zenbakia BS+3  
Korreto kalea 4. zenbakia BS+5



5. Bilbao Arenal hotela  
Foru kalea 2. zenbakia  
BS+5



6. "Surne" enpresako eraikina  
BS+6  
1975-84 eraikia  
Arkitektoak, Sans estudioa



7. San Nikolas eliza  
1743-1756 eraikia  
Barrokoa - planta zentrala  
Arkitektoak, Ignacio Ibero eta Julio Sara-  
cibar



8. Arenaleko kioskoa  
Arenal pasealekua  
1928 eraikia  
Arkitektoa, Pedro Ispizua




9. Arriaga antzokia  
Arriaga Plaza 1. zenbakia  
1885 - 1890 eraikia  
Neobarroko eklektikoa  
Arkitektoa, Joaquin de Rucoba

Arenal 4 eraikinak, eraikia izan zenetik (ez da aurkitu eraikuntza proiektuaren daturik ez datarik) **hainbat era-bilera** barne hartu izan ditu urteetan zehar.

Datatua dagoen lehenengo interbentzioa kontuan izanda, **jatorriz etxebizitzak** zirela suposatu egin da. Honen ondoren hala ere beste **hainbat interbentzio** jaso ditu bere fatxada eta barnea erabat moldatu izan dutenak.

Etxebizitzak izan eta gero, **hotel erabilera** izatera pasa zen, eta hau izan da bere **erabilerarik famatuena**, *Hotel Almirante*-aren eskutik (1949). Gainera hau izan zen bere **aldaketarik esanguratsuena** eta garaiko **fatxada** da gaur egunera arte iritzi egin zaiguna (modifikazio txiki batzuekin batera).


Honen ondoren, 1977. urtean erabilera berriro ere aldatu zen eta **banku baten ofizinak** izatera pasa zen. Azkenengo urte hauetan nahiz eta bankuen izenak aldatu, erabilera mantendu egin da **gaur egunera arte**, orain bere **urte gorenak berreskuratu** nahian hotel erabilera bueltatu egingo baita.



Arkitektoa: Alfredo Acebal Gordon  
"La Casa del Suizo"  
1910



Arkitektoa: Rafael Fontan Saenz  
Hotel Almirante  
1950



Ipar kutxa -  
Laboral Kutxa  
2013





Fondo: La Gaceta del Norte (Bilboko artxiboa) 0301\_003088\_F-000087-004-001  
1978 Garaipenaren zubia, Arenal



Fondo: La Gaceta del Norte (Bilboko artxiboa) 0301\_002639\_F-000086-001-002  
1981 Arenaleko plaza eta San Nikolas eliza



Fondo: La Gaceta del Norte (Bilboko artxiboa) 0301\_002638\_F-000086-001-002  
1981 Fueros 2 eta Korreo 1 kaleen arteko eraikinaren eraiketaren prestaketa




Fondo: La Gaceta del Norte (Bilboko artxiboa) 0301\_002641\_F-000086-001-002  
1981 Arenaleko plaza



Fondo: Bilboko udala (Bilboko artxiboa) 01\_008930\_F-000116-001  
1956 Arenal, Expte. 57-1-16, nº archivo 1957-14.




Fondo: (Bilboko artxiboa)  
Almirante hotela 1950




SOTO PLANTA  
"Bilboko udal artxiboa, 1950"




BEHE PLANTA  
"Bilboko udal artxiboa, 1950"




PLANTA OROKORRA (1, 2, 3, 4, 5, 6 solairuak)  
"Bilboko udal artxiboa, 1950"




7 SOLAIRUKO PLANTA  
"Bilboko udal artxiboa, 1950"




8 SOLAIRUKO PLANTA  
"Bilboko udal artxiboa, 1950"



FATXADA ARENAL KALERA  
 "Bilboko udal artxiboa, 1950"



FATXADA KORREO KALERA  
 "Bilboko udal artxiboa, 1950"



EBAKETA  
 "Bilboko udal artxiboa, 1950"




Arenalek fatxada printzipala



Ariaga plazatik fatxada printzipaleko bista



San Nikolas elizatik bista



Goi aldeko erdialdeko detaiea



7 solairuko hornamentu detaieak



Behe solairua

## ERAIKINAREN ARKITEKTURA

Eraikina, **hamar solairuetan** banatzen diren **3.800m<sup>2</sup> baino gehiago** dauzka (sotoa barne) eta **triangelu formako** plantan oinarritzen da. Bi fatxada aurkezten ditu, nagusiena Arriaga kalera ematen du, espazio zabal batera non alboko fatxadekin batera **alde zaharraren mugetako** bat osatzen duen; bestea Korreo kalera, hau jada alde zaharra osatzen duten kale estuetan sartzen da. Mehelinean duen fatxada beste bi eraikinekin egiten du muga, hauetako bat Arriaga kalera eta bestea Korreo kalera eraikinaren fatxadak jarraituz.


**Estilo klasikoan** oinarritzen da batez ere gaur egungo fatxada eta ornamentua ageri du zenbait tokietan. Guztiz **erregularra** da eta **orden** bat jarraitzen du bi fatxadetan, hala ere nahiz eta haien artean antzeko itxura izan, ez dira guztiz berdinak. Hutsarten eritimoa batetik bestera aldatu egiten da, eta Korreo kalera ematen duen fatxada **"bigarren mailako" fatxada** moduan kontsidera daiteke bestearekin konparatua izan ere honek dekorazio gutxiago erakusten du izan ere honek kale estu batera ematen du.

## ERAIKINAREN ALDAKETAK

**Modifikazioak** jasan izan ditu urteetan zehar izan dituen **erabileren arabera**, bai egituran baita kanpoko forman ere. 1859-60 urtetik (lehengo datuak lortu direnetik) gaur egunera fatxadak **aldaketa handiak** jasan ditu hala ere gaur egun daukan itxura, Bilboko hiriarentzat **oso esanguratsua** da 1950. urtetik morfologia berdina izan duelako.

1977an **ofizinak** izatera pasa zenean, **barnealde guztia aldatu** egin zen ofizina espazio irekia jartzeko eta barne **patioa itxi** eta estali egin zen planta zabalago bat izateko. Estalkian ere **bolumen berriak** jarri ziren geometriarekin bat ez zetozenak (hauak instalakuntza berrientzako espazioa zirela suposatuta egin da).

Ondoren beste modifikazio txiki batzuk egin direla ere ikusten da, erabileraren arabera moldatuz.




**(LEG) LEGEDIA**

HIRIGINTZA


LEG01. PLAN OROKORRA  
LEG02. PER Alde Zaharra

LEG03. HOTELAK





- Hiri lurzoria
- Erantsitako plangintzaren eremuak
- A- P.E.R. Casco Viejo
- B- P.E.R.R.I. Bilbao la Vieja
- C- P.P. Zorrozgoiti
- D- P.P. Mina del Morro
- Gerorako antolaketa-aldearen mugapena hiri lurzorian
- Sistema orokorrak
- 17- Estacion de Abando
- Lurzoru urbanizagarri egitarautugabea
- Lurzoru urbanizagarri egitarautugabea
- Lur urbanizaezina
- Gerorako antolaketa-aldearen mugapena lur urbanizaezinean
- lur urbanizaezinean



- Ibaia
- Erantsitako plangintzaren eremua
- Gerorako-antolaketa eremua


**HIRIGINTZA**

- Bilboko HAPO – Hiri Antolamendurako Plan Orokorra

Arenal kalea 4 eraikina  
 Lurzoruaren kasifikazioa: Hiri lurzoria  
 Lurzoruaren kalifikazioa: Alde zaharra

Bilboko HAPO-ak azaltzen duen moduan alde zaharrak erantsitako plangintza eremua da eta honen garapenerako PER, Alde Zaharraren Birgaitzerako Plan Berezia jarraitu beharko da ondoren azalduko den moduan.

## LERROKADURAK



- Lerrokadurak
- Sestrapeko eraikinak
- Arkupeak
- Nahitaezko eraispen partzelak erabileraren aldaketa edo etxebizitza kopuruaren gehipena suposatzen duten interbentzioetan

•PER – Plan Especial de Rehabilitación del Casco Viejo de Bilbao

## ERABILERA

PER-ean agertzen den moduan, Bilboko alde zaharrak orokorrean etxebizitzetarako erabilera dauka eta merkatu txikietarako salmentetarako lehentasuna duten gunek ere askotan ageri dira. Gehienetan behe solairuak komertziorako erabiltzen dira eta gainontzeko solairuak etxebizitzetarako.

Artículo 16º Usos sustentados en la edificación o instalación y usos libres de edificación.


1. Los usos que podrán ubicarse en edificación o instalación, serán los siguientes:
  - Uso residencial (vivienda, apartahotel,...)
  - Uso hotelero.

Arenal kaleko 4. zenbakiko eraikinak, **etxebizitza erabilera** dauka, baina **bulegoetarako erabilera onartuarekin**, izan ere Laboral Kutxaren sedea da eraikina gaur egun.

HELBURUA: Hotel bat egiteko, **erabilera aldatu** beharko zen Plan Bereziaren modifikazioaren bitartez.

22. art. Hotel erabilera, 1. Mailakoa.

## ERABILERA



- Etxebizitza erabilera
- Solairu guztietan bulegoetarako onartzen diren eraikinak
- Merkatu txikizkako salmentetarako lehentasuna duten gunek
- Eskulangintzaren lantegi txikietarako lehentasuna

## ERDI MAILAKO BABESA

Kasu honetan, eraikinak **II erdi mailako eta tipologi babesa** dauka.

Art. 48. Mantentzeko elementuak

Bere **morfologia orokorra** mantentzeko ezinbesteko elementuak mantenduko dira eta materialen ezaugarriak bermatuko dira bere balore historiko eta tipologikoa mugatzeko.

Art. 49. Baimendutako interbentzioak

2. **Fatxaden zaharberritzea** bai kanpotik baita barrutik ere hauen **modifikazio partziala** onartzen delarik beti ere balore berezia duten elementuak errespetatuz.
3. Berrerabili ezin daitezkeen elementuen aldaketa baimentzen da
4. Iraingarriak kontsidera daitezkeen **elementuen kentzea** baimentzen da
5. Barne **distribuzioaren eraberritzea** baimentzen da gaur egungo erabilerara **moldatzeko** betiere erabilera berriek garbitasun eta osasun oinarriak betetzen dituztelarik.
8. **Instalakuntza berriak** sartzeari baimendua dago betiere gaur egungo araudia betetzen duelarik. Eraikinaren **altuera maximoa bermatua** egongo da.


## OINARRIZKO ETA GIRO BABESA

Inguruko eraikinak (Korreo kalean) **oinarrizko giro babesa** izango dute, beraz ondorengoak bete beharko dituzte.

Art. 50. Mantentze elementuak

Eraikinaren **kanpo ezaugarriak mantendu** beharko dira hau da fatxada eta estalkiaren ezaugarriak. Estalkian modifikazioaren bat baleko, gaur egungo material berdinez (edo ezaugarri berdinekoak direnak) estaliko dira.

## BABES MAILAK ETA MONUMENTUAK



- Monumentutzat artutako eraikinak
- Berezi eta osoko babesa
- Osoko babesa
- Erdi eta tipologi babesa
- Tipologi babesa
- Oinarritzko eta giro babesa
- Osoko berregokipenetik kanpo dauden eraikinak
- Antolaketa diferentiatik kanpo dauden eraikinak
- Batera-gaitz diren eraikinak

Kasu honetan eraikinaren **erabilera aldatzeaz** gainera, honekin bat **interbentzio bat planteatzen** da Arenal kalea 4 eraikinean. Interbentzio honetan, erabilerarekin bat datozen moldaketan egingo dira eraikinean.

Alde batetik **barnealdea moldatu** egingo da erabilera berriari espazio egokiak proiektatzeko asmoarekin, beti ere fatxadak duen eritimoa eta forjatuen kokapena **errespetatuz** PER-an azaltzen den moduan. **Fatxada** ahal den elean **mantenduko** da, eta mantentzen diren elementuen **materialitatea bermatu** egingo da. Estalkian agertzen diren gerora eraikitako **bolumenak ordezkatu** egingo dira **azken solairuaren egokitzearen** planteamendurekin, betiere gaur egun duen **altuera bermatuz**.

Bi fatxada mehelinean izanda, hauen **lerrokatadura guztiz errespetatuko** da eraikinaren altuera osoan zehar. Korreo kalearen aldean, menelinean dagoen eraikinaren babesa aztertuz, honen altuera ezingo dela igo aurreikusten da.

Planteatutako interbentzioa gauzatzeko beharrezkoak diren **baimenak eskatuko** dira eta Plan Orokorren aldaketa aurreikusten da araudiak bere erabilera berri **moldatu** ahal izateko.

## 1. KOMUNIKAZIOAK

### 1.1. SARRERAK

SARRERAK	5	4	3	2	1
Sarrera ezberdina erabiltzaile eta zerbitzurako	x				
Sarrera printzipala estalia		x			

### 1.2. ATARIA

- Erabiltzaile guztiarentzako egokia izango den ataria egongo da, honi dagozkion beharrezko instalakuntza guztiak, harrera eta atezaintzarekin batera
- Atariaren azalera hotelaren edukierarekin proportzionala izango da

ATARIA	5	4	3	2	1
Arropazaintza	x				
Telefonoa	x				

### 1.3. IGOGAILUAK

IGOGAILUAK	5	4	3	2	1
Igogailu kopurua	2				
Montakarga kopurua	-				

### 1.4. KORRIDOREAK

- Zoruak material akustiko adsorbatzailez estalia egongo da.
- Korridore printzipalak izan beharko dituzten zabalera minimoak
- %15ean txikitu daitezke kasu berezietan.

KORRIDOREAK	5	4	3	2	1
Korridoreen zabalera	1,75	1,6	1,5	1,3	1,2

Korridore printzipalak 2,1m izango ditu, bestelako puntuetan pasorako zabalera minimoa 1m-koa izango da

### 1.5. ESKAILERAK

- Zerbitzuko eskailera suteentzako ere erabiliko dira beharrezkoak diren kondizioak betetzen badira

ESKAILERAK	5	4	3	2	1
Erabiltzaileentzako eskaileren zabalera	2				
Zerbitzu eskailera	-				
Suteentzako eskailera					

Eskailera printzipala eta zerbitzurako eskailera egongo dira. Bigarren honek suteentzako ere erabiliko da emergentzia kasuan.

## 2. ERABILTZAILEEN ESPAZIOAK

### 2.1. LOGELAK

- Logela guztiak zenbaki baten bitartez identifikatuko dira, identifikazio hau atean kokatuko da.
- Iluminazio eta aireztapen egokia izango dute kanpoaldera emango duena.
- Logela iluntzeko metodoen bat egongo da. [Leihoetan gortinak egongo dira.](#)
- Ateen altuera 2,03m-koa izango da eta minimo 90º-ko zabalera izango dute.
- Logela guztiak konfort maila egokia izango dute.
- [Gehienez ohe gehigarri bat egongo da.](#)
- [Edozein logeletan sehaskak instalatu ahalko dira](#)

- 4 eta 5 izarretako hoteletan suite junior egongo dira.
- 5 izarretako hoteletan %5 suite ak izango dira

### 2.2. LOGELEN KOMUNAK

- Gutxienez dutxa, konketa eta komuna egongo dira.
- Aireztapen egokia izango dute.

### 2.3. KOMUN KOMUNAK

- Espazio komunetan kokatuko dira.
- Irisgarritasun baldintza minimoak beteko dituzte.

### 2.4. JANGELA ETA EGONGELAK

- Egongela komunaren azalera minimoa 20m2-koa izango da eta jantokiarena 25m2-koa.

Solairu guztietan 32m2-ko egongelak egongo dira eta 65m2-ko jangela egongo da.

- Espazio komunak kanpoaldera aireztapena izango dute

JANGELA ETA EGONGELA	5	4	3	2	1
Egongela	Bai				
Kafetegi - taberna	Bai				
Azalera komuna	4				

## 3. ZERBITZUAK

### 3.1. SUKALDEA

SUKALDE OROKORRA	5	4	3	2	1
Sukaldea	Bai				
Hozkailu gela	Bai				
Janaritegia	Bai				
Biltegia	Bai				

### 3.2. EKIPAJEARENZAKO BILTEGIA

EKIPAJE BILTEGIA	5	4	3	2	1
Ekipaje zerbitzua	Bai				
Ekipajearentzako biltegia	Bai				

## 4. PERTSONALARENTZAKO ESPAZIOAK

- Gizon eta emakumeentzako aldagelak egongo dira, dutxa, takila eta eserlekuak.
- Komunak egongo dira
- Gaua pasa behar duen pertsonalarentzako logela egongo da.

Logela 4 pertsonentzako izango da eta gainontzeko pertsonalarentzako espazioekin batera aurkituko da eraikinaren sotoan.  
[Langileentzako jangela egongo da](#)

## 5. INSTALAKUNTZA ETA ZERBITZUAK

### 5.1. INSTALAKUNTZAK

- Unitate guztiak berokuntza eta aireztapen sistema independenteak izango dituzte.
- Logela guztietan telefono zerbitzua egongo da.
- Hotel guztiak WIFI zerbitzua egongo da.
- Ordenagailu komunak egongo dira solairu guztietan .

### 5.2. BARNE ZERBITZUAK

- Harrera 24h-ko zerbitzua eskainiko du.
- Garbiketa zerbitzua 24h-koa izango da.
- Konponketa zerbitzua 24h-koa izango da.
- Eguneroko garbiketa zerbitzua egongo da.

### 5.3. IRISGARRITASUNA

- Irisgarritasun baldintza minimoak beteko dira hote osoan legeak adierazten duen moduan.
- Logelen %2-a irisgarriak izan beharko dute
- Bi logela irisgarri egongo dira guztira (%2-a baino gehiago)

### 5.4. BESTE ZERBITZUAK

- Umeen zaintzarako zerbitzua eskainiko da hotelean bertan egongo den beste espazio pribatuan behe solairuan.

## **(PR) PROPOSAMENA**

### GAIAREN AUKERAKETA

- PR01. NEGOZIOETARAKO BIDAIK. UMEAK
- PR02. NEGOZIOETARAKO BIDAIEN DATUAK
- PR03. TURISMOA
- PR04. TURISMOAREN DATUAK
- PR05. GAIAREN JUSTIFIKAZIOA

### PR06. ERABILTZAILEAK

### ERAIKINAREN INTERBENTZIOA

- PR07. TRATAERA
- PR08. BARNE PROPOSAMENA
- PR09. KANPO PROPOSAMENA

### PR10. INFLUENTZIAK



## 01. NEGOZIOETARAKO BIDAIK

**Negoio edo lan bidaiak** enpresa askotan, gero eta gehiago ematen diren bidaiak dira. Bidai hauek bai **banaka baita taldeetan** egin daitezke, kasuaren arabera. Bidaiariak aisialdia eta negozioak nahastea gustuko dute "business+leisure" eta %49 inguru bidaiak luzatu egiten dutela azaltzen dute zenbait ikerketek.

Gaur egun, negozioetarako bidaiak ez dira denbora galdu edota eragozpen baten moduan kontsideratzen, baizik eta bakoitzaren **esperientziak aberasteko** edota **karrera profesionalean aurrera** jarraitzeko eta lan modu ezberdinak **eza-gutzeko** ere balio dute.

Bilboko hiriak, dituen enpresa barietate eta mugimendu handia duelarik, **negozio bidai asko** izaten ditu urte osoan zehar, hauek askotan hoteletan gauzatzen dira eta **jardunaldiak** prestatzen dira bertan, ondorengo grafikoetan ikus daitezkeez. Turismoaren garai gorenak baztertzuz ekaina eta azaroan egiten dira batez ere hala ere urte osoan zehar agertzen dira.

## 02. UMEAK


Hala ere, negozioetako bidaiak askotan **arazo** bat izaten dira zenbait pertsonentzako, izan ere **ume txikiak** dituzten gurasoak lan bidaiak egin behar izaten dutenean ez dute izaten umea uzteko **toki egokirik** edota latza egiten zaie, batez ere ume txikiak dituztenei hauetatik hainbat egun aldentzea.

### HELBURUA:


Batez ere **negozioetako bidaietara bideratutako hotela** planteatzen da, bertan **lan** egiteko naiz **deskantsu** eta **aisialdirako** espazio ezberdinak planteatuko dira, gainera lanean aritzen diren gurasoentzat, **umeak** beraiekin eramateko posibilitatea ere zabaltzen da **espazioak moldatzeko** aukerarekin eta haurtzaindegi batekin batera.

**01.2 NEGOZIO BIDAIEN DATUAK**  
BILBO HIRIAN


**BILTZAR TIPOLOGIAREN ARABERAKO BANAKETA (2016)**




**BATZARREN KOKAPENA**



**BILTZARREN IRAUPENA (2016)**



**URTAROKO IZATEA**



**BIBLIOGRAFIA:**



## 02. TURISMOA

Bilboko hiriak, Bizkaiarekin batera azkeneko garaian **turismoaren inguruan gorakada** handia izan du. 2016ko urtean %7,5 igo da bertara joaten diren bisitarien portzentaia, hau turismoaren inguruan errekor berri bat suposatzen du. Honek guztiak, lurralde osoan zehar **1.817 milioi euro** baino gehiagoko ondasuna sortzen du eta modu zuzen edota zeharkakoan **40.800 pertsoneri enplegua** eskaintzen die.

*"Garrantzi handiko sektore baten aurrean gaude eta ganoraz hartu beharreko gaia da" - Diputatu foralak.*

Eman den gorakada hau dela eta, Bilboko Udalak Bizkaiako Foru Aldundiarekin batera, "**Estrategia Turismo 2020**" dokumentua aurkeztu egin dute. Bertan, Bizkaian eta Bilbon konkretuki eskaintzen den turismoa, bikaina, eraginkorra, profesionala eta koordinatua izatea planteatzen da. Gainera urte osoan zehar lurraldean egiten diren **sarrerak egonkor mantentzea** ere lortu nahi da.

### HELBURUA


Erabiltzaileen **beste alderdi bat, turismora** bideratutako bezeroak izango dira. Datuak aztertuta, adibidez **udako** hilabetetan zehar negozioetako bidaiak jaitsi egiten dira, onduan da turismo gehien azaltzen den unea eta orduan izango da hotelak turista bezero gehien izango dituen hilabeteak. Gainontzeko hilabetetan zehar, hotelaren minimoa izatea pentsatu da.

**02.2 TURISMO DATUAK**  
BILBO HIRIAN

**DATU OROKORRAK**

	2013	2014	2015	2016	2017
BIDAIARIEN SARRERA	728.537	742.445	813.357	877.847	912.989
